

Prensa oharra

Nota de prensa



Udalak mugikortasun bertikaleko elementuen ordutegia zabalduko du uda honetan

Udalak ordubete luzatuko du zerbitzu horien eguneroko funtzionamendua, eta Aste Nagusian goizaldeko 01:00ak arte egongo dira martxan

Donostiako Udalak arrapalen, igogailuen eta hiriko gainerako elementu mekanikoen funtzionamendu-ordutegia handituko du udan, mugikortasuna erosoagoa, seguruagoa eta irisgarriagoa izan dadin espazio publikoan jarduera eta jende gehien izaten den hilabeteetan. Neurri hori herritarrek egindako eskaera baten ondorio da, eta aukera emango du zerbitzu horien funtzionamendua hiriaren udako bizi-erritmora egokitzeko, garai horretan jendea gehiago egoten baita etxetik kanpo, tenperaturaz, aisiaz eta kalean izaten diren jardueraz gozatzen.

Hala, ordubete luzatuko da igogailuen, arrapalen eta hiriko elementu mekanikoen ohiko ordutegia, 00:00ak arte hain zuzen ere.

Gainera, Aste Nagusian, Udalak errefortzu berezia jarriko du, eta zerbitzu horiek guztiak goizaldeko 01:00ak arte egongo dira erabilgarri, jaietan joan-etorriak errazteko eta jende gehien ibiltzen den egunetan auzoen arteko lotura hobetzeko.

Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako zinegotzi Iñigo Garcíak adierazi duenez, "udan aldatu egiten da hiria, eta zerbitzu publikoek ere errealitate horretara egokitu behar dute. Jende askok denbora gehiago ematen du kaleez, terrazez, hondartzaz edo kultura- eta jai-programazioaz gozatzen, eta uste dugu garrantzitsua dela etxera seguru, eroso eta ahalik eta modurik irisgarrienean itzultzea».

Garcíak nabarmendu duenez, "Donostiak aldapa handiak ditu eta auzo asko elementu mekaniko horien mende daude egunero. Ordutegiak zabaltzeak milaka bizilagunen bizi-kalitatea hobetzea dakar, eta mugikortasuna erraztea garraioa eta joan-etorriak areagotzen diren uneetan".

Gaineratu duenez, "horrek bereziki mesede egingo die adinekoei, mugikortasun murriztua duten pertsoneri, haur-kotxeekin doazen familiei eta aldapa handiko eremuetan bizi diren bizilagunei".

Udalak gogorarazi nahi du Donostiak hiri-mugikortasun bertikaleko sare zabala duela eta hori funtsezkoa dela irisgarritasuna eta auzoen arteko lotura

Prensa oharra

Nota de prensa

bermatzeko, batez ere Donostia bezalako hiri batean, orografia konplexua du eta.

"Askotan azpiegitura handiez hitz egiten dugu, baina eguneroko zerbitzu txiki horiek funtsezkoak dira jende askorentzat. Hiri atseginagoa, irisgarriagoa eta herritarren ohitura eta ordutegi berrietara egokituago egongo dena nahi dugu", ondorioztatu du Garcíak.

Ordutegia luzatuz, Udalak herritarren bizi-kalitatea hobetzen jarraitu nahi du, eta udan udal-zerbitzuak hiriaren erabilera eta dinamika berrietara egokitu.

Hiriko elementu mekaniko eta mugikortasun bertikaleko elementu nagusiak

Gaur egun, Donostiak hiri-elementu mekanikoen sare zabala du, hiriko hainbat auzotan banatuta. Elementu horiek funtsezkoak dira irisgarritasuna hobetzeko eta milaka pertsonari eguneroko joan-etorriak errazteko. Elementu horiek honako hauek dira:

- **Aiete:** Hiru Damatxoko, Matiako, Pinu Bideko eta Pio Barojako igogailuak eta Morlanseko igogailu inklinatua.
- **Altza:** Txirrita Bertsolariaren kaleko, Buenavistako, Harrobietako, Larratxoko, Rutilitako eta San Luis Gonzagako igogailuak, Altza-Larratxoko igogailu inklinatua eta Harrobietako eta Larratxoko eskailera mekanikoak.
- **Antigua:** Zarautz eta Aizkorri kaleetako eta Bentaberriko igogailuak.
- **Egia:** Alaialde, Aldunaene, Luis Martin Santos eta Mundaizko igogailuak.
- **Erdialdea:** Aquarium, Easo eta Lizarrako igogailuak eta San Rokeko arrapala eta eskailera mekanikoak.
- **Gros:** Sagueseko igogailua.
- **Intxaurreondo:** Lizardiko arrapala eta eskailera mekanikoak.
- **Loiola:** Ariztigañako igogailua
- **Mirakruz-Bidebieta:** Azkuene-Gomistegiko igogailua.

Guztira, 28 igogailu-instalazio, igogailu inklinatuko 2 instalazio, eskailera eta arrapala mekanikoen 4 instalazio (guztira, 8 eskailera mekaniko eta 7 arrapala mekaniko).

Elementu horiek hiria irisgarriagoa, kohesionatuagoa eta herritar guztien mugikortasun-beharretara egokituagoa izateko bidean aurrera egiteko udal-estrategiaren parte dira.